

2009/05/22

## **Ezkio-Itsaso "Familientzako papiroflexia tailerra antolatu du biharko Zumalakarregi museoak"**

Zumalakarregi museoak apiriletik ekainera bitartean antolatu dituen ekitaldien baitan, bihar familientzako doako Papiroflexia tailerra izango da.

Museotik 6-12 urtera bitarteko haurrak eta hauen familiak gonbidatzen dituzte paper hutsarekin objektu politak sortzera koilareak, hegalari xelebreak, ontzi bitxiak, etab. luze bat.

Hau guztia bihar larunbata, maiatzak 23, arratsaldeko 16:30tan hasita 19:00ak bitartean. Izen emateko deitu 943 889900 telefonora edo idatzi [mzumalakarregi@gipuzkoa.net](mailto:mzumalakarregi@gipuzkoa.net) helbide elektronikora.

### Argazki erakusketa

Bestetik, lehengo ostiralean irekiera ofiziala eman zioten Museo Eguna 20 urtez argazki erakusketari. Maiatzaren 31ra bitartean egongo dela ikusgai jakinarazi nahi dute Zumalakarregi Museotik. Bertan, museoak aurten bete dituen 20 urteetan zehar nazioarteko museoek eguna beraiekin ospatu dutenen argazkiak ikus daitezke.